

Goiatz Labandibar Arbelaitz

AIAKO HARRIA ALTXOR HANDIA

AIAKO harria hiru tontor eta parke natural bat baino askoz gehiago da. Euskal Herriko mendirik zaharrenetarikoa izateaz gain, gure lurraldean dagoen granitozko mendilerro bakarra da. Ezaugarri berezi hauek Euskal Herriko aberastasun geologiko garrantzitsuenetarikoa bihurtzen dute Oiartzungo, Irungo eta Lesakako lurrek osatzen duten mendia eta honen ingurua.

Duela 280 milioi urte inguru atera zen urpetik Aiako harria. Ordura arte, magma masa erraldoia zena lur azpian mantendu eta hoztu zen, baina hainbat mugimendu tektonikok lurrazalera atera zuten. Aiako harriaren orografia berezi eta ikusgarriak sumendi izan zenaren mitoa ere sortu izan du, baina ez da inoiz hala izan, sumendiak lurpetik azkar batean ateratzen baitira, laba eta kea jaurtiz. Aiako harriaren eratze prozesua, nahiz eta harri igneoa izan, askoz motelagoa izan da, milioika urteko prozesu baten ondorioa izanik. Paleozoiko garaian hasi zen Aurrepirinioetako mendi honen garapen prozesuak gaur egun ere bere bidea egiten jarraitzen du.

Duela 400 milioi urteko fauna primitiboaren aztarnak ezin hobeto kontserbatuta topatu dituzte bertan geologoek eta Gipuzkoako flora arrastorik zaharrenak ere bertan topatu dira. Honek ere berebiziko garrantzia ematen dio Aiako harriari.

■ Aiako harriko mazizoa. Argazkia: Oskar Zapirain



Goiatz Labandibar Arbelaitz (Oiartzun, 1985). Kazetaria ikasketaz eta Oiartzungo Udaleko Komunikazio arduraduna da. Oarsoaldean

aldizkarian ere kolaboratzen du. Azken urteetan hainbat literatur sari irabazi ditu.



■ *Erroilbide Arrisorotik.* Argazkia: M. Arrizabalaga

MEATZARITZA USTIAKETA HANDIA

Granitozko batolitoa lur sakonean kristalizatu zenean, mineralen filoiak sortu zituen. Izan ere, baliabide mineral handiko eremua da Aiako harria. Goethitak, sideritak, galenak, berunak eta zilarrak meatzaritza ustiaketarako apropos bihurtu dute ingurunea antzina-antzinatik: Erromatarren garaiko aztarnak daude Arditurriko meategietan, eta Erdi Arotik 1984a bitartean, ia etengabea izan da Aiako harrian mineralak ustiatzea. Bestelako mineral batzuk ere badaude Aiako harrian: fluorita, ortosa edota blenda, baina hiru mineral hauek ez dira batere preziatuak meatzaritza ustiaketan.

Gutxienez, duela 2000 urte hasi ziren ustiatzen Arditurri erromatarrek. Garai haietako aztarna ugari topatu dituzte arkeologoek (erremintak, txanponak, botoiak, keramika,

galeriak, pikotxen arrastoak, abere hezurrak, egurra...) baina ikusmin handiena sortu dutenak azken bi urteetan Arkeolango adituek bertan topatu dituzten artilezko oihal zatiak izan dira. Arkeologoek arabera, milaka lagunek lan egin behar izan zuten Aiako harriaren sabelalde honetan, egunero-egunero, 200 bat urtez, 600 bat gizaseme inguruk egin baitzuten lan Arditurri. Iberiar Penintsulan erromatarrek zituzten meategi ustiapen garrantzitsuenak ziren Arditurrikoak, Las Medulasekoen (Leon) ondoren.

Aro Modernoan, Oiartzungo Sein familia izan zen Arditurri ustiatu zutenetako bat. 1790. urtean jaso zuen Jose Antonio Seinek meategiak ustiatzeko baimena Espainiako Errege Karlos IV.aren eskutik. Ustiaketako azken urteetan, Compañía Asturiana de Minas izan zen Arditurriko jabea.

■ *Arditurriko meategiak.* Argazkia: Oskar Zapirain





■ *Aiako Harria Karrika auzotik.* Argazkia: M. Arrizabalaga

HIRU TONTOR, HAMAIKA ISTORIO

Hiru tontor ditu Aiako harriak: Irumugarrieta (740 m), Txurrunmuru (823 m) eta Erroilbide (837 m). Baina historian zehar, eta tokiaren arabera, izen horiek aldatu egin izan dira. Esate baterako, Irumugarrieta tontorrak XVI. eta XVIII. mendeen artean Zamarrolagaña izena omen zuen (olagizonen lanari erreferentzia egiten zion izena zen). Eta Irunen, garaiena den hirugarren tontorrari esten diote Txurrunmuru. Bigarrena, Ayaco arriya omen da hango dokumentuei kasu egiten bazaie.

Aiako harria bera Hiru Koroak gisa ezagutzen da Ipar Euskal Herrian, alde hartatik begiratuta duen itxuragatik. Hondarribian, berriz, Batallau gisa ezagutzen da Aiako harria.

Izenek eurek ere istorio politak dituzte atzean ezkutaturik. Erroilbidek Errolan heroi karolinjioari zor omen dio izena, eta Errolanen pasabidea esan nahi omen du, On Manuel Lekuona apaiz ikertzaile oiartzuarrek jaso zuenez.

Irumugarrietan, berriz, hiru herriren mugek bat egiten dute (Oartzun, Irun eta Lesakak) eta horri zor dio tontorrak izena. Diotenez, garai batean hiru erresumatako lurrak izan zitezkeen bertan mugakide zirenak: Nafarroa, Gaztela eta Ingalaterrako koroenak.

Hiru tontor nagusiak (eta garaienak) Irumugarrieta, Txurrunmuru eta Erroilbide badira ere, Aiako harriko mendilerroan tontor gehiago ere badaude: Muganix (758 metro), Belitz (484 metro), Kopakoarri (602 metro), Agiña (618 metro), Erlaitz (497 metro) edota Pagogaña (482 metro). Bazter-bazterrean, Biandizko mendilerroan daude, aldiz, Errenga (794 metro), Ikatzuloko bizkarra (580 metro), Bianditz (840 metro) edota Galtzarrieta (813 metro).

AIAKO HARRIKO PARKE NATURALA

Aiako harriak izen bereko parke naturala ere badu. 1995. urtean osatu zen sarea bost udalerritako eremuekin: Oartzun, Irun, Errenteria-Orereta, Hernani eta Donostia, hain zuzen. Parke naturalak dituen 6913 hektareek Gipuzkoako parke natural handienetako bat osatzen dute eta lur eremu horren azalera gehiena publikoa da

■ *Aiako harria inguratzen duen ubidea.* Argazkia: M. Arrizabalaga



(eremuaren %79,5). Parke naturaleko lur eremu handiena Oiartzuni (%44,7) eta Erreteriarri (%25,1) dagokie.

Europako Batasunaren Natura 2000 LIFE proiektua burutu da Aiako harria parke naturalean 2005etik, eremuaren %35ean. Programaren helburua parke naturaleko berezko habitatak berreskuratu eta mantentzea da. Habitat natural horren parte dira flora aldetik hain ugari diren pinuak, pagoak, haritzak eta gaztainondoak. Berebiziko flora aberastasuna dira Añarbeko harizti eta pagadiak, Enderako hariztia eta Oianlekuko pagadia. Zuhaitzez gain, garrantzia biologiko handia dute erreka bazterretako eta arroken inguruan sortu diren landaretzek. *Soldanella villosa* landarea oso ezaguna da Bizkaiko golkoan eta Akitanian, baina Aiako harria da eremu guzti horretan ugarien topatzen den tokia.

Fauna aldetik ere, eremu aberatsa da Aiako harriko parke naturala: sai arreak, basurdeak, suge berde-horiak, orkatzak, urtxintzak, amuarrainak, muturluze piriniarrak... aurki daitezke. 147 ornodun espezie baino gehiago daude.

Parke naturalaren eremuan daude, esate baterako, Aizpitarteko kobazuloak (Erreterria) edota Ingelesaren gaztelua edo Aireko palazioa (Oiartzun). Izenak dionaren kontra, bertan ez dago gaztelurik eta sekula ez da ingelesik egon. Garai batean Arditurriko meatzarien ostaturia zegoen han.

Parke naturaleko bi puntu urrunenak 19,1 kilometroko distantziara daude elkarretatik: Bidasoa ibaia eta Añarbeko urtegia dira bi puntu horiek. Klima hiperhezeko ingurunea da Aiako harria. Bitxikeria gisa, Euskal Herrian metro koadroko euri gehien egiten duen eremua da, batez ere neguan, urtean 2800 mm baino gehiago jasotzen baitira. Ziurrenik hargatik, ura da Aiako harria parke naturaleko beste aberastasun handienetako bat (Gipuzkoako etxeen erdiak baino gehiagok Aiako harriko ura jasotzen du).

KONDAIREN SORLEKU

Aiako harriak inguruko herrietako mitologian ere eragin handia izan du. Intxixuak dira herri irudimenaren baitan bertan bizi diren izaki basatiak, erdi gizon-erdi betizuak eta sorginen senarrak. Legendak dioenez, oso zaila da intxixuak ikustea, izaera lotsatia dutelako. Aiako harriaren inguruan nahiko ugariak diren mairu-baratzetan lurperatuta daudela sinestu ohi da eta herri sineskeriaren arabera, Aiako harriaren inguruan dauden estazio megalitiko ugariak euren lanaren emaitza dira: Oianleku, Munerre, Basate, Kauso...

Intxixuak inauteetako pertsonaia ere bihurtu dituzte 80. hamarkada bukaeratik hona Oiartzunen. Urtean behin, Aiako harria utzi eta herrira jaisten dira, baina atzera Aiako harria itzultzen dira, egun haietan esan ohi dutenez, gure "zibilizazio txit perrua" ez dutelako gustuko.

Intxixuekin batera, Aiako harriko dama (Mari edo Puiako Mari) bizi da bertan, mitologiaren arabera. Euskal mitologiako jainkosarik ezagunena da Mari, eta hemen ere badu bizitokia. Negua Aiako harriaren pasatzen omen du Marik, ekaitz eta euriteen eraginez. Udan, ordea,ugar artean hegan eginez, Jaizkibel aldera joaten omen da. Han, berriz, itsasoko enbatak sortzen ditu. Hala ere, bai Marik eta bai Intxixuek ere Aiako harriaren inguruko bizilagunak laguntzen zituztela dio kondairak, isilpean bada ere.

Lesaka aldean, berriz, Olentzero ikazkina Aiako harriaren bizi dela uste dute. Han kontaktzen denez, Olentzeroren ohitura bertakoa da jatorriz.

■ *Aiako harria Oianlekuko parajeetatik.* Argazkia: M. Arrizabalaga



Ibilaldiak

1.- Hiru tontorrek Elurretzetik

Desnibela: 484 m

Denbora: 3 ordu

Ibilbidea:

Elurretzetik abiatu eta alanbrezko hesiaren ondotik ibiliz elurzuloa eskuinera utziko dugu. Basoan murgildu eta berehala ondo taxututako bideak bunker baten ondora eramango gaitu. Sigi-sagan igotzen den bide eroso jarraituz Irumugarrietarantz joko dugu. Lepora iristean, Muganixko gailurra eskuinera utzi eta ezker aldean Juncal Andra Mariaren harpera zuzentzen den zidorra ikusiko dugu. Harpearen gainetik doan bidea jarraituz, Pustako iturria ikusiko dugu. Berehala izango gara Irumugarrietako gailurrean. Gure aurrean, oso gertu, Txurrumurruren tontorra. Ondo markaturiko bidetik bi mendien artean dagoen lepora jaitsiko gara, Gipuzkoa eta Nafarroa banatzen duen hesiaren ondora heldu arte. Bertan dagoen xenda jarraituz laster izango gara Txurrumurruren oinean. Bide-seinaleak daude haitzetan gidari. Malda motza baina pikoak da eta igotzen hastean eskuez baliatu beharko dugu zenbaitetan. Berehala tontorrera igoko gara.

Txurrumurrutik Erroilbidera pasatzeko aurkituko dugu zailtasunik handiena: Eratzunen pasabidea (II-III mailako zailtasuna). Hirugarren tontorrera heltzean, xenda hartuz Arrisorora jaitsiko gara. Hesiaren ondotik jarraitu eta Enarriko bidegurutzera heltzean, iparraldeko bidea hartuko dugu. Aiako harriko magala zeharkatzen duen bide balizatu hau jarraituz Elurretzera itzuliko gara, abiapuntura.

2.- Hiru tontorrek Aritxulegitik

Desnibela: 664 m

Denbora: 3 ordu 30'

Ibilbidea:

Aritxuloko aterpetik atera, tunelera igo eta lehen metroak pistan egingo ditugu, baina hau laster utzi eta tunelaren gainetik doan xenda hartuko dugu. Azkar helduko gara Gipuzkoa eta Nafarroako lur-eremuak banatzen dituen alanbrezko hesiaren ondora. Iparralderantz ateratzen den bidezidorra jarraituz Enarriraino igoko gara. Geure aurrean eta alertzeen basoaren gainetik, orain arte ezkutaturik egon den granitozko mendigunea agertuko zaigu. Lehen mendia Erroilbide da eta bere atzean lerrokaturik, Txurrumurru, Irumugarrieta eta Muganix.

Erroilbidera gerturatzen goazen heinean, granitozko bloke erraldoi hori igotzea ezinezkoa irudituko zaigu, eskalatzuz ez

bada behintzat. Aurrera segi eta Arrisorora iritsiko gara. Ezker aldera jo eta berriro alertzeen artean murgilduko gara, tarteka pagoren bat edo beste azalduko bazaigu ere. Jaisten hasi eta gorantz begiratzuz paraje malkartsu horiek oraindik zeharkaezinak irudituko zaizkigu. Gainera denbora labur batez mendi tontorrek begibistatik galduko ditugu. Zidorra jarraituz poliki poliki igotzen hasiko gara berriz, baina oraingoan inguruaren itxura aldatu egiten da erabat: lehen bidezidor markatuak eta malda leunak izan baditugu, oraingoan xenda haitzen artean galtzen da eta parajeak deskubrituz egingo dugu aurrera. Malda gogor eta pikoak eramango gaitu Erroilbideko gailurrera. Hemendik, beste bi tontoretara jarraitu daiteke aurreko ibilaldian aipatutakoa alderantziz eginez. Behin Elurretzera helduta, Aireko palaziora jaitsi eta Aiako harriko magala zeharkatzen duen ubidea bilatuko dugu. Bide balizatu jarraituz itzuliko gara Aritxulegira.

3.- Mendigunea inguratuz

Desnibela: 410 m

Denbora: 3 ordu 15'


Ibilbidea:

Aritxulegiko tunelaren gainetik doan xenda hartuko dugu eta lepora heltzean, gure aurrean Kopakoarri eta Agiña ikusiko ditugu. Nafarroako eta Gipuzkoako lurak banatzen dituen alanbrezko hesia pasa eta pistan barrena abiatuko gara Alai-alde jatetxearen ondora heldu arte. Honen azpitik pasatzen den ubidera jaitsi eta ondo markaturiko bidea jarraituko dugu. Inguruaz gozatuz, oharzteke ubidearen ondotik doan xenda utzi behar dugun lekura helduko gara. Ubidea utzi eta gorantz, hariztian sartu eta Xaguxar izeneko ingururantz igoko gara. Laster izango gara "Aireko palazioa" (Ingelesaren gaztelua) izenez ezaguna den ingurunean. Garai batean meategietako bulegoak eta meatzarientzako ostatu izan ziren eraikinen aztarnak aurkituko ditugu. Bigarren eraikinaren ondotik pasatzean, pago mardulen artean, malda motz baina gogor bati ekingo diogu. Ezkutaturik dagoen bunker baten ondotik pasa eta goraxeago beste xenda batek elurzulo bat dagoen lekura eramango gaitu. Beherantz egin eta Elurretzera iritsiko gara.

Gure ezkerretik ateratzen den belarrezko pista zabala hartuko dugu. Berehala, sigi-sagan bide eroso, nabarmen eta eder batek altuera galarazten digu pago, alertze eta gorostien artetik igaroz. Behean, Arditurriko meategiak dauzkagu. Poliki poliki igotzen hasiko gara, aldapa motza baina gogorra gidari. Alertze gazteen baso batetik ateratzean, bide samurrak lagunduko digu arnasa eta indarra berreskuratzen. Enarriren magalean, Aritxulegitik Erroilbidera igotzeko erabiltzen den bidearekin bat egingo dugu. Ondo markaturiko bideak Aritxulegiko tunelaren gainean dagoen

■ *Muganix, Hirumugarrieta, Txurrumurru eta Erroilbide.* Argazkia: M. Arrizabalaga





Iepora eramango gaitu eta hemendik atsedenekura abiatuko gara tunelera jaisteko pista jarraituko dugularik.

4.- Arditurritik Errekarte harrira

Desnibela: 494 m

Denbora: 1 ordu 15' (igo)

Ibilbidea:

Arditurriko Interpretazio Zentrotik, ibaia zeharkatzen duen harrizko bidea jarraituko dugu, Arditurriko amildegitik gora segituz. Unailekuko bordaren ondotik pasako gara, basoan sartuz. Hego-mendebalderantz jota, Errekarte harrira iritsiko gara. Igoera erraza izan arren, pasabideren batean II. mailako zailtasuna gainditu eta Errekarte harriko tontor ederrera iritsiko gara.

Eskalatzeko aukera ere eskaintzen du Aiako harriak; Euskal Herrian granitozko harkaitzaren gainean eskalatzeko aukera bakarra izateak estimatu bihurtzen du eskalatzaileen artean. Oiartzun aldean, Aritxulegin, Pikoketan edota Aiako harriko tontorretan eskala daiteke. Lesaka aldean, berriz, Kopakokoarri toki egokia da eskalada jardueretarako. □

■ *Ilunabarra Erroilbiden.* Argazkia: M. Arrizabalaga

Web guneak

- www.oartzun.org: Bertan, Turismo Bulegoaren txokoa, Aiako harriari eta herriko museoei (Arditurri, Luberrri zein Herri Musikaren Txokoa) informazioa eskura dezake bisitariak lau hizkuntzatan (euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez).
- www.girizia.org: Girizia Mendi Taldeak urteko egitarauaren berri ematen du, besteak beste. Mendian federatzeko argibideak ere ematen ditu, baita azken urteetako irteeretako argazkiak ikusteko aukera ere.
- www.aritxulo.org: Aiako harrien magalean kokatua dago Oiartzungo Udala aterpetxea, Aritxulegi mendian. Bertan ostatu hartzeko beharrezko informazioaz gain, mendizaleentzako zein eskalatzaileentzako informazio praktikoa eskaintzen du.
- www.arditurri.com: Arditurriko Interpretazio Zentroko gunearen zuzeneko lotura. Meatzaritzaekin lotutako historia eta ondarea ezagutzeko toki aproposa da. Besteak beste, meategi barruan bisitak egiteko aukera eskaintzen dute.
- www.luberrri.org: Luberrri Ikasgune Geologikoaren webgunean Aiako harriko historia geologikoa ezagutzeaz gain, egiten duten lanaren berri jasotzeko gune interesgarria da.
- <http://www.lifeaiakoharria.net>
- <http://www.mendikat.net>
- http://www.euskal-herria.org/mendi/Aiako_Harria

Bibliografia

- Aldezabal Roteta, A.: *Aiako harria parke naturaleko (Gipuzkoa) interes bereziko landare espezieen azterketa korologiko eta ekologikoa*, EHUko Landare-Biologia eta Ekologia Saila.
- Arrizabalaga, M.: *Rutas y paseos por Aiako harria y Artikutza*, Sua Edizioak, 1997.
- Lopez Lafuente, J.A., Vicente Blasco, J.M.: *Bide piriniarra*, Prames.
- Peña Santiago, L.P.: *Euskal Herriko 100 gailur eta mila txoko*, Elkar, 1990.
- Perez, F.P.: *Aiako harriko fauna eta flora*, Adeve, 2004.
- Torres, J.A., Gutierrez, K.: *Oiartzun haranaren geologia eskuliburua*, Luberrri, 2006.
- Torres Saenz, J.A.: *Oiartzun haraneko geologia*, Oiartzungo Udala, 1998.
- Yániz, S.: *Rincones singulares de Gipuzkoa*, Sua Edizioak, 2000.

Kartografia

- *Aiako harriko parke naturala*, 1:20000 eskala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, 2002.
- *Aiako harria*, 1:20000 eskala, Imanol Goikoetxea, 1992.
- *Oiartzun*, 1:15000 eskala, Oiartzungo Udala eta Eusko Jaurlaritza.
- *Bidasoa* (liburua + mapa), 1:25000 - 1:50000 eskalak, Cuadernos Pirenaicos, Sua Edizioak, 2005.

